

**GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO  
XEDAPEN OROKORRAK**

1

**DISPOSICIONES GENERALES DEL  
TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA****GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA****BIDE AZPIEGITURETAKO DEPARTAMENTUA**

*20/2020 Foru Dekretua, urriaren 20koa, Bide Azpiegituretako Departamentuaren egitura organikoari eta funtzionalari buruzkoa.*

Bide Azpiegituretako Departamentuaren jardura eremua eta egitekoak, eta horretarako beharrezkoa duen antolaketa ezarzen dituzte, hurrenez hurren: diputatu nagusiaren ekainaren 29ko 3/2019 Foru Dekretuak, Gipuzkoako Foru Aldundiko departamentuak eta horiei dagozkien jardun esparruak eta eginkizunak finkatzekoak, 12. artikuluan; eta uztailaren 1eko 19/2019 Foru Dekretuak, Gipuzkoako Foru Aldundiko oinarriko departamentu egiturari buruzkoak, 8. artikuluan.

3/2019 Foru Dekretuaren 12. artikuluari jarraikiz, aurreko agintaldian zituen jardun esparru eta funtzio berdinak izango ditu Bide Azpiegituretako Departamentuak errepideen arloan, non eskumen osoa baitauka Gipuzkoako Lurralde Historikoak, bi lege nagusi hauetatik datorrena: Euskal Herriaren Autonomia Estatutua (10.34 artikulua) eta Autonomia Erkidego osorako erakundeen eta bere Lurralde Historikoetako foru erakundeen arteko harremanei buruzkoa azaroaren 25eko 27/1983 Legea –7. artikulua a) 8. apartatua–; alde batera utzi gabe arlo horretan erregimen komunek aldundiei dagozkien funtzioak.

Halaber, diputatu nagusiaren irailaren 29ko 6/2020 Foru Dekretuak egindako aldaketaren ostean, zituen, bizikleta bideen azpiegituren arloko funtzio jakin batzuk beteki dituzte agintaldi honean ere, baina aurrekoan baino mugatuagoak.

19/2019 Foru Dekretuaren 8. artikulua, berriz, departamentuari esleitutako jardun esparruei eta funtzioei erantzuten dien oinarriko konfigurazio organikoak finkatzen du, aurreko agintaldian bezala bi zuzendaritza nagusi osatutakoak; ondorengo hauek, hain zuzen: Errepide Zuzendaritza Nagusiak eta izena aldatu zaion Plan-gintza eta Ustiaketa Zuzendaritza Nagusiak.

Horrez gain, kontuan izanda Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2020-2023 Plan Estrategikoa eta Etorkizuna Eraikiz eredu agintaldi honetako foru gobernuaren jardunaren oinarri izango direla, departamentuaren antolaketa eta eginkizunak egokitu dira horiek aplikatu eta ezartzeko.

Horrenbestez, Bide Azpiegituretako Departamentuaren egitura organikoak eta funtzionalak finkatzea da foru dekretu honen xedea.

Horrela bada, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzko uztailaren 12ko 6/2005 Foru Arauak 31.4.c), 40.2.a) eta 65. artikuluetan xedatutakoaren arabera, Bide Azpiegituretako Departamentuko foru diputatuak eta Gobernantza Departamentuko foru diputatuak batera proposatuta eta Diputatuen Kontseiluak gaurko bileran eztabaidatu eta onartu ondoren, honako hau

**DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA****DEPARTAMENTO DE INFRAESTRUCTURAS VIARIAS**

*Decreto Foral 20/2020, de 20 de octubre, sobre estructura orgánica y funcional del Departamento de Infraestructuras Viarias.*

El artículo 12 del Decreto Foral del diputado general 3/2019, de 29 de junio, de determinación de los departamentos de la Diputación Foral de Gipuzkoa, y de sus áreas de actuación y funciones, y el artículo 8 del Decreto Foral 19/2019, de 1 de julio, sobre estructura departamental básica, establecen el ámbito de actuación y las funciones que se atribuyen al Departamento de Infraestructuras Viarias y la organización con la que se dota para ello.

De conformidad con el artículo 12 del Decreto Foral 3/2019, el Departamento de Infraestructuras Viarias mantiene las áreas de actuación y funciones del mandato anterior en materia de carreteras, en la que el Territorio Histórico de Gipuzkoa ostenta competencia exclusiva, que deriva del artículo 10.34 del Estatuto de Autonomía del País Vasco y del apartado a) 8 del artículo 7 de la Ley 27/1983, 25 de noviembre, de Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los Órganos Forales de sus Territorios Históricos, todo ello sin perjuicio de las que en esta materia corresponden a las diputaciones de régimen común.

Igualmente, y tras la modificación introducida por el Decreto Foral del diputado general 6/2020, de 29 de septiembre, seguirá ejerciendo determinadas funciones en materia de infraestructuras de vías ciclistas, aunque con menor alcance.

Por su parte, el artículo 8 del Decreto Foral 19/2019 fija la configuración orgánica básica que ha de responder a las áreas de actuación y funciones atribuidas al departamento, y que se compone de dos direcciones generales, como en el mandato anterior: la de Carreteras, y la de Planificación y Explotación, que cambia de denominación.

Junto a todo ello, la acción del gobierno foral en el presente mandato se vertebrará sobre el Plan Estratégico 2020-2023 de la Diputación Foral de Gipuzkoa y el modelo Etorkizuna Eraikiz, para cuya aplicación e implantación se adecúan la organización y funciones del departamento.

De conformidad con lo expuesto, es objeto del presente decreto foral establecer la estructura orgánica y funcional del Departamento de Infraestructuras Viarias.

Por todo ello, en virtud de lo dispuesto por los artículos 31.4.c), 40.2.a) y 65 de la Norma Foral 6/2005, de 12 de julio, sobre Organización Institucional, Gobierno y Administración del Territorio Histórico de Gipuzkoa, a propuesta conjunta de la diputada foral del Departamento de Infraestructuras Viarias y de la diputada foral del Departamento de Gobernanza, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno Foral, en sesión del día de la fecha,

XEDATZEN DUT

I. KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

*1. artikulua. Departamentuaren eginkizunak eta eskumenak.*

1. Bide Azpiegituretako Departamentuari jardun esparru eta eginkizun hauek dagozkie:

a) Gipuzkoako Foru Aldundiaren Errepide Sarea planifikatzea.

b) Lurralde Historikoko errepide sarea eraikitzea; baita errepideak eraikitzeko proiektuetan sartutako bizikleta bideen azpiegiturek ere, horien trazatua errepidearen plataforma ondotik doanean.

c) Lurralde Historikoko errepide sarea artatzea eta ustiatzea.

d) Gipuzkoako Foru Bizikleta Bideen Sarearen Katalogoaren barruan dauden bizikleta bideen sarearen ohiko artatze-lanak gauzatzea, eta sare hori zaintzea nahiz ustiatzea.

e) Indarrean diren arauetan esleitzen zaizkion gainerako eskumenak gauzatzea.

2. Horiez gain, Bide Azpiegituretako Departamentuak, bere zuzendaritza nagusien, zerbitzuen eta unitate organikoen bidez, lankidetzan estuan jardungo du Proiektu Estrategikoetako Departamentuarekin azken horren lidergopean dauden zeharkako proiektuak garatu, kudeatu eta gauzatzekoan.

Xede horrekin, lanean zeharkakotasuna eta barruko zein departamentuen arteko kooperazioa nahiz koordinazioa errazteko eta bermatzeko egokiak diren bitartekoak jarriko dira.

*2. artikulua. Oinarrizko egitura organikoa.*

1. Departamentuko titularraren zuzendaritzapean, departamentua ondoren adierazten diren unitate organikoetan egituratzen da:

a) Errepide Zuzendaritza Nagusia:

– Artapeneko eta Sistema Adimendunetako Zerbitzua.

– Bide Azpiegituren Proiektuetako eta Eraikuntzako Zerbitzua.

– Bide Azpiegituren Birgaitze Zerbitzua eta Bulego Teknikoa.

b) Plangintza eta Ustiaketa Zuzendaritza Nagusia:

– Plangintza eta Ustiaketa Unitatea.

– Kontratazio Zerbitzua.

c) Idazkaritza Teknikoa.

2. Departamentuari atxikitzen zaio Bidegi Gipuzkoako Azpiegituren Agentzia-Agencia Guipuzcoana de Infraestructuras SA foru sozietate publikoa.

*3. artikulua. Foru diputatuaren eginkizunak eta eskumenak.*

1. Diputatuen Kontseiluko kide gisa dituen eginkizunaz gain, departamentuko foru diputatuari dagokio, bertako titularrak eta hierarkikoki goi organoa denez, unitate organiko guztiak zuzendu eta kontrolatzea.

2. Bere zereginak betetzeko, foru diputatuak ditu, printzipioz eta Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzko uztailaren 12ko 6/2005 Foru Arauak 40. artikuluan aurreikusitako eran, departamentuak kudeatzen dituen gaiak ebazteko eskumen guztiak,

DISPONGO

CAPÍTULO I

DISPOSICIONES GENERALES

*Artículo 1. Funciones y competencias del departamento.*

1. Al Departamento de Infraestructuras Viarias le corresponden las siguientes áreas de actuación y funciones:

a) Planificación de la Red de Carreteras de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

b) Construcción de la red viaria del Territorio Histórico y de las infraestructuras de vías ciclistas integradas en los proyectos de construcción de carreteras, cuando su trazado sea contiguo a la plataforma de la carretera.

c) Conservación y explotación de la red viaria del Territorio Histórico.

d) Conservación ordinaria, vigilancia y explotación de la red de vías ciclistas incluidas en el Catálogo de la Red de Vías Ciclistas Forales de Gipuzkoa.

e) Las demás competencias que se le atribuyan por la normativa aplicable.

2. Igualmente, el Departamento de Infraestructuras Viarias, a través de las direcciones generales, servicios y unidades orgánicas que lo integran, prestará la máxima colaboración al Departamento de Proyectos Estratégicos en el desarrollo, gestión y ejecución de los proyectos transversales que lidere dicho departamento.

Asimismo, se habilitarán los cauces que resulten más adecuados para facilitar y asegurar el trabajo transversal y la cooperación y coordinación intra e interdepartamental a estos efectos.

*Artículo 2. Estructura orgánica básica.*

1. Para el ejercicio de sus competencias y bajo la superior dirección de su titular, el departamento se estructura en las siguientes unidades orgánicas:

a) Dirección General de Carreteras:

– Servicio de Conservación y Sistemas Inteligentes.

– Servicio de Proyectos y Construcción de Infraestructuras Viarias.

– Servicio de Rehabilitación de Infraestructuras Viarias y Oficina Técnica.

b) Dirección General de Planificación y Explotación:

– Unidad de Planificación y Explotación.

– Servicio de Contratación.

c) Secretaría Técnica.

2. Se adscribe al departamento la sociedad pública foral Bidegi Gipuzkoako Azpiegituren Agentzia-Agencia Guipuzcoana de Infraestructuras SA.

*Artículo 3. Funciones y competencias de la diputada foral.*

1. Además de las funciones derivadas de su condición de miembro del Consejo de Gobierno Foral, corresponden a la diputada foral del departamento, como titular y órgano jerárquicamente superior del mismo, la dirección y control de todas sus unidades orgánicas.

2. Para el cumplimiento de sus funciones, la diputada foral ostenta en principio y en los términos previstos en el artículo 40 de la Norma Foral 6/2005, de 12 de julio, sobre Organización Institucional, Gobierno y Administración del Territorio Histórico de Gipuzkoa, todas las competencias resolutorias so-

salbu foru arau hark, foru dekretu honek edo ondorengo beste arau batek berariaz departamentuko beste organo batzuei esleitutakoak.

3. Foru diputatuak bereganatu ahal izango du bere mendeko administrazio organoei, berez edo eskuordetaz, ebatzea dagokien gairen baten ardura.

#### 4. artikulua. Zuzendari nagusiak.

1. Zuzendari nagusiak departamentuko zuzendaritza organoetako titularrak dira, eta haien buruzagitza eta erantzukizuna hartzen dituzte beren gain. Hortaz, oro har uztailaren 12ko 6/2005 Foru Arauak 46. artikuluan biltzen dituenaz gain, ondo eginkizunak betetzea dagokie:

a) Gobernu programa eta Plan Estrategikoa inplementatzea, ikuspegi estrategikoa eta zeharkakotasuna txertatuz Gipuzkoako Foru Aldundiaren politika publikoetan.

b) Foru Aldundiaren politiken aplikazioa bultzatzea ondorengo alor hauetan: Administrazioaren berrikuntza eta eraldaketa, prozeduren hobekuntza, giza baliabideen garapena eta herritarrekiko harremanak.

c) Zuzendaritzako zerbitzuen programazioa, koordinazioa eta jardueren kontrola.

d) Departamentuaren ordezkari protokolaria betetzea, foru diputatua ez dagoenean eta bakoitzak bere eskumenen eremuaren barruan.

e) Uztailaren 12ko 6/2005 Foru Arauak 48.2 artikuluan ezarritakoari jarraikiz foru diputatuak eskuordetze bidez ematen dizkien eginkizunak betetzea.

2. Eginkizun horiek betetzeko, gai hauetan ebazteko eskumena eduki eta erabiliko dute zuzendari nagusiek, deskontzentrazioko arauei jarraikiz:

#### a) Kontratazio arloan:

– Beren zuzendaritzako gaitan obra proiektuak eta kontratazio espedienteak onartzea eta dagozkion kontratuak adjudikatzea, balio zenbatesiak zenbateko hauek gainditzen ez dituztean: 200.000 euro obren kasuan, eta 60.000 euro hornidura eta zerbitzuen kasuan; eskumen horrek berekin daramatza, baita ere, dagokion gastua onartzea eta sektore publikoko kontratuei buruz indarrean dagoen legeriak kontratazio organoari aitortzen dizkion gainerako ahalmenak gauzatzea.

– Zuzendaritza nagusiak kudeatutako kontratuen adjudikaziodun diren enpresek aurkezten dituzten segurtasun eta osasun planak onartzea.

– Zuzendaritza nagusiak kudeatutako kontratuen lan programak onartzea, sektore publikoko kontratuei buruzko legeriak aurreikusitakoaren arabera.

– Segurtasun eta osasun arloko koordinatzailea izendatzea berak adjudikatutako eraikuntza obretan.

– Zuzendaritza nagusiak kudeatutako kontratuei dagozkien ziurtagiriak eta konturako ordainketak onartu eta ordaintzea, haien zenbatekoa dena dela.

– Administrazio klausula partikularren orrian aurreikusitako zigorrak ezartzea berak adjudikatutako kontratuetan.

– Berak adjudikatutako kontratuetako obra, hornikuntza, zerbitzu eta bestelako prestazioak jasotzea.

– Berak adjudikatutako kontratuetan bermeak kitatu eta itzultzea.

#### b) Bestelako arloetan:

– 60.000 eurorainoko beste edozein gastu baimentzea.

bre las materias gestionadas por el departamento y no atribuidas expresamente a otros órganos por la citada norma foral, el presente decreto foral u otra norma posterior.

3. La diputada foral podrá avocar para sí el conocimiento de un asunto cuya resolución corresponda ordinariamente o por delegación a sus órganos administrativos dependientes.

#### Artículo 4. Las direcciones generales.

1. El director y la directora general, titulares de los órganos directivos del departamento, asumen la jefatura y la responsabilidad de los mismos. A tal efecto ejercerán, además de las atribuciones que con carácter general se recogen en el artículo 46 de la Norma Foral 6/2005, de 12 de julio, las siguientes:

a) La implementación del programa de gobierno y del Plan Estratégico, incorporando la visión estratégica y la transversalidad en el conjunto de las políticas públicas de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

b) El impulso de la aplicación de las políticas de la Diputación Foral en las siguientes materias: innovación y transformación de la Administración, mejora de procedimientos, desarrollo de sus recursos humanos, y relaciones con la ciudadanía.

c) La programación, coordinación y control de la actuación de los servicios de la dirección general.

d) La representación protocolaria del departamento, en ausencia de la diputada foral y dentro del ámbito de sus respectivas competencias.

e) Las competencias que la diputada foral les delegue, al amparo de lo dispuesto en el artículo 48.2 de la Norma Foral 6/2005, de 12 de julio.

2. Para el cumplimiento de las funciones señaladas, las personas titulares de las direcciones generales ostentarán y ejercerán, en régimen de desconcentración, las siguientes competencias resolutorias:

#### a) En materia de contratación:

– Aprobar los proyectos de obra y los expedientes de contratación en las materias propias de su dirección; y resolver sobre su adjudicación, cuando el valor estimado del contrato no sea superior a 200.000 euros tratándose de obras, y 60.000 euros tratándose de suministros o de servicios; lleva implícita la aprobación del gasto y las demás facultades que la legislación en materia de contratos del sector público atribuye al órgano de contratación.

– Aprobar los planes de seguridad y salud que presenten las empresas adjudicatarias de contratos gestionados por la dirección general.

– Aprobar los programas de trabajo de los contratos gestionados por la dirección general, conforme a lo previsto en la legislación en materia de contratos del sector público.

– Designar coordinador en materia de seguridad y salud, en las obras de construcción por él o ella adjudicadas.

– Aprobar y abonar certificaciones y otros pagos a cuenta respecto de los contratos gestionados por la dirección general, cualquiera que sea su importe.

– Imponer penalidades previstas en el pliego de cláusulas administrativas particulares en los contratos por él o ella adjudicados.

– Recibir obras, suministros, servicios y otras prestaciones en los contratos por él o ella adjudicados.

– Cancelar y devolver garantías en los contratos por él o ella adjudicados.

#### b) En otras materias:

– Autorizar cualesquiera otros gastos por importe de hasta 60.000 euros.

– 60.000 eurorainoko edozein ordainketa egitea, aldez aurretik baimendutako gastuak badira.

– Oro har, partikularren eta administrazio publikoen eskaerak ebaztea, betiere 60.000 euro baino gehiagoko gastu konpromisorik ez badakarte.

– Bermeak kitatu eta itzultzea.

– Bere zuzendaritza nagusiko zerbitzuak kudeatzeko planak onestea.

3. Deskontzentrazioko arauen arabera esleitu zaizkien eskumenak baliatuz zuzendari nagusiek ematen dituzten ebazpenek ez diote amaiera ematen administrazio bideari, eta haien aurka gora jotzeko errekurtsioa jar daiteke departamentuko foru diputatuaren aurrean.

#### 5. artikulua. Zerbitzuburuak.

1. Zerbitzuburuaren eginkizuna da, zuzendaritzarekin partekatutako hausnarketaren esparruan, erakundearen helburu programatikoak eta estrategikoak aurrera ateratzeko ekintza nagusiak aztertzea eta proposatzea, haiek emandako jarraibideak aintzat harturik.

2. Zehazki, eginkizun hauek dagozkie:

a) Foru gobernua beren eremurako proposatutako erroinei ekitea eta zerbitzuko Kudeaketa planak proposatzea, helburuak, ekintzak, baliabideak eta ebaluatzeko adierazleak zehaztuta.

b) Zerbitzuaren egiturako beste mailetak langileei helburuak adieraztea, eta horiek eragimenez lortzeko lan sistema egokiak antolatzea.

c) Beren ardurapean dauden langileen zuzendaritza eta horiei aplikatzen zaizkien arauak betetzen direnaren zuzeneko kontrola bere gain hartzea.

d) Planifikatu, antolatu, zuzendu, koordinatu eta ebaluatzea beren ardurapeko langileen taldeko eta banakako lana.

e) Zerbitzuko barne araubidea betetzen den kontrolatzea, eta gorabeheren berri ematea.

f) Beren ardurapeko giza nahiz ekonomia baliabideak modu eraginkorrean eta organo eskudunek emandako arauen arabera kudeatzea; eta arrazionalizazioko eta etengabeko hobekuntzako estrategiak aurrera eramatea herritarrari zerbitzu hobea eskaintzeko xedez.

g) Esleitzen edo eskuordetzen zaizkion eginkizunak betetzea.

## II. KAPITULUA

### EGITURA ORGANIKO ETA FUNTZIONALA

#### 1. ATALA. Errepide Zuzendaritza Nagusia

##### 6. artikulua. Errepide Zuzendaritza Nagusiaren eginkizunak.

Errepide Zuzendaritza Nagusiari dagokio ondoko eginkizunak betetzea, bertako titularraren buruzagitzaren eta erantzukizunaren pean:

a) Gipuzkoako Foru Aldundiaren Errepide Sarea proiektatzea eta eraikitzea; baita errepideen eraikuntza proiektuetan sartutako bizikleta bideak ere, foru dekretu honen 1.1.b) artikuluan xedatutakoari jarraikiz.

b) Gipuzkoako Foru Aldundiko Errepide Sareko bide azpiegiturretan egin beharreko inbertsioak programatzea.

c) Gipuzkoako Foru Aldundiaren Errepide Sarea artatzea; eta Bizikleta Bideen Sarearen ohiko artatze-lanak gauzatzea, foru dekretu honen 1.1.d) artikuluan xedatutakoari jarraikiz.

– Realizar abonos de todo tipo y por importe de hasta 60.000 euros, correspondientes a gastos previamente autorizados.

– En general, resolver peticiones de particulares y de administraciones públicas, siempre que no supongan compromisos de gasto por importe superior a 60.000 euros.

– Cancelar y devolver garantías.

– Aprobar los planes de gestión de los servicios de su dirección general.

3. Las resoluciones que dicten las personas titulares de las direcciones generales en el ejercicio de las competencias atribuidas en régimen de desconcentración no ponen fin a la vía administrativa, y frente a ellas cabrá la interposición de recurso de alzada ante la diputada foral del departamento.

#### Artículo 5. Las jefaturas de servicio.

1. Los jefes y jefas de servicio son las personas responsables, en el marco de una reflexión compartida con la dirección, de estudiar y proponer las acciones necesarias para el desarrollo de los objetivos programáticos y estratégicos de la institución, siguiendo las instrucciones de sus superiores.

2. En concreto, les corresponde:

a) Acometer los retos propuestos por el gobierno foral y elaborar las propuestas de planes de gestión de su servicio, definiendo los objetivos, acciones, recursos e indicadores que permitan su evaluación.

b) Comunicar los objetivos a los demás niveles de la estructura de su servicio y organizar los sistemas de trabajo de manera adecuada para la consecución eficiente de los mismos.

c) Asumir la dirección del personal a su cargo y el control directo del cumplimiento de las normas de aplicación a dicho personal.

d) Planificar, organizar, dirigir, coordinar y evaluar el trabajo, en grupos o individual, del personal a su cargo.

e) Controlar el cumplimiento del régimen interno del servicio, dando cuenta de las incidencias.

f) Gestionar eficientemente los recursos humanos y económicos a su cargo, con arreglo a las normas establecidas por los órganos competentes, configurando estrategias de racionalización y de mejora continua como medio para prestar un mejor servicio a la ciudadanía.

g) Ejercer las funciones que les sean atribuidas o delegadas.

## CAPÍTULO II

### ESTRUCTURA ORGÁNICA Y FUNCIONAL

#### SECCIÓN 1.ª Dirección General Carreteras

##### Artículo 6. Funciones de la Dirección General de Carreteras.

Bajo la jefatura y responsabilidad de su titular, corresponde a la Dirección General de Carreteras el ejercicio de las siguientes funciones:

a) La proyección y construcción de la Red de Carreteras de la Diputación Foral de Gipuzkoa; y de las vías ciclistas integradas en los proyectos de construcción de carreteras, en los términos previstos en el artículo 1.1.b) del presente decreto foral.

b) La programación de las inversiones en infraestructuras varias de la Red de Carreteras de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

c) La conservación de la Red de Carreteras y la conservación ordinaria de la Red de Vías Ciclistas de la Diputación Foral de Gipuzkoa en los términos previstos en el artículo 1.1.d) del presente decreto foral.

d) Bidegi SAK bere ardurapeko errepideetan egindako lanen koordinazio teknikoa, bere eskumeneko gaietan eta zuzendaritza nagusiko zerbitzuen bitartez.

e) Lurralde Historikoko Errepideen Sarearekin zerikusia duten gaietan, Europako, Estatuko eta Autonomia Erkidegoko erakundeekin harremanak izatea, eta erakunde horiekin koordinatzea.

#### 7. artikulua. Artapeneko eta Sistema Adimendunetako Zerbitzua.

1. Titularraren ardurapean, zerbitzu honi dagokio Gipuzkoako Foru Aldundiaren Errepide Sareko eta Bizikleta Bideen Sareko bideak artatzea eta kudeatzea eta, horretarako: bide azpiegiturak eta horien elementuak egoera onean mantentzeko eta segurtasun baldintza egokiak bermatzeko behar diren planak eta proiektuak idatzi, obrak gauzatu, eta operazioak eta zerbitzuak kudeatzea; eta, halaber, bide-zaintzari bideratutako laguntza kudeatzea.

2. Hain zuzen, eginkizun hauek dagozkio aurreko atalean ezarritakoa garatzeko:

a) Egunean jartzea errepideak eta bizikleta bideak artatzeo gaiei buruzko araudi teknikoa.

b) Harremanetan egotea entitate publiko nahiz pribatuekin, bide-zaintza kudeatzeko ideia berritzaileak definitu eta gauzatzeko.

c) Bide zerbitzuaren kalitatea kudeatzea, bide-zaintzari bideratutako jardueren bidez, neguko bide-zaintzaren bidez eta bideen ohiko artapen eta zaintza jardueren bidez.

d) Bide ondarea babestea, ohiko artapenerako jarduketak kudeatu eta planifikatzeko sistemak erabiliz, eta errepideko elementuak hobetu eta araudira egokituz.

e) Teknologia berriak sustatzea, eraginkortasun operatiboren bila, garraioari lotutako sistema adimendunak sartuta, Errepideak Kudeatzeko Zentroa funtzionalki garatuta, eta energia eraginkortasuna oinarritzeko elementu gisa integratuta jarduketak guztietan.

f) Errepideak erronka teknologikoetara prestatzearekin zerikusia duten azterlanak eta jarduerak bultzatzea.

g) Organo eskudunak agindutako proiektuak idatzi, eta obrak zuzendu eta kontrolatzea.

#### 8. artikulua. Bide Azpiegituren Proiektuetako eta Eraikuntzako Zerbitzua.

Titularraren ardurapean honako zeregin hauek dagozkio zerbitzuari:

a) Lurralde historikoko bide azpiegiturak eraiki edo hobetzeko alde zuzentzeko azterlan, informazio-azterlan eta proiektuak idatzi edo zuzentzea.

b) Organo eskudunak agindutako obrak zuzendu eta kontrolatzea.

c) Bide azpiegitura berrien eta egokitze lanen eraikuntza eta kalitatea kudeatu eta kontrolatzea.

#### 9. artikulua. Bide Azpiegituren Birgaitze Zerbitzua eta Bulego Teknikoa.

Titularraren ardurapean honako zeregin hauek dagozkio zerbitzuari:

a) Gipuzkoako Foru Aldundiaren Errepide Sareko bide azpiegiturak konpontzeko eta birgaitzeko obra-proiektuak idatzi, eta obren zein zerbitzuen kontratuak zuzentzea.

d) La coordinación técnica, en las materias de su competencia y a través de los servicios de la dirección general, de las labores llevadas a cabo por Bidegi SA en las carreteras a su cargo.

e) Las relaciones interinstitucionales con las instituciones europeas, estatales y autonómicas en las materias relacionadas con la Red de Carreteras del Territorio Histórico, así como la coordinación con dichas instituciones.

#### Artículo 7. Servicio de Conservación y Sistemas Inteligentes.

1. Bajo la responsabilidad de su titular, corresponden a este servicio el mantenimiento, la conservación y la gestión de la vialidad en la Red de Carreteras y en la Red de Vías Ciclistas de la Diputación Foral de Gipuzkoa, mediante la redacción de planes y proyectos, la ejecución de obras y la gestión de operaciones y servicios destinados a mantener las infraestructuras viarias y sus elementos funcionales en buen estado y en las debidas condiciones de seguridad, así como a gestionar la ayuda a la vialidad.

2. En concreto, le corresponde el ejercicio de las siguientes funciones en desarrollo de lo establecido en el apartado anterior:

a) Poner al día la normativa técnica en las materias propias de conservación de carreteras y de las vías ciclistas.

b) Mantener relaciones con entidades, tanto públicas como privadas, para la definición y ejecución de ideas innovadoras en la gestión de la vialidad.

c) Gestionar la calidad del servicio vial, a través de las actividades de ayuda a la vialidad, la vialidad invernal y las actividades de conservación ordinaria y vigilancia de la vía.

d) Preservar el patrimonio vial, mediante el empleo de sistemas de gestión y planificación de actuaciones de conservación ordinaria, mejora y adecuación a la normativa de los distintos elementos de la carretera.

e) Impulsar las nuevas tecnologías orientadas hacia la consecución de la eficiencia operativa, incorporando sistemas inteligentes de transporte, desarrollando funcionalmente el Centro de Gestión de Carreteras, e integrando la eficiencia energética como elemento base en todas las actuaciones.

f) Impulsar los estudios y actuaciones relacionados con la preparación de las carreteras a los retos tecnológicos.

g) Redactar proyectos y dirigir y controlar las obras que le sean encomendadas por el órgano competente.

#### Artículo 8. Servicio de Proyectos y Construcción de Infraestructuras Viarias.

Bajo la responsabilidad de su titular, corresponden a este servicio las siguientes funciones:

a) Redactar o dirigir los estudios previos, estudios informativos y proyectos para la construcción o mejora de las infraestructuras viarias del territorio histórico.

b) Dirigir o controlar las obras que le sean encomendadas por el órgano competente.

c) Gestionar y controlar la construcción y la calidad de las nuevas infraestructuras y de las obras de acondicionamiento.

#### Artículo 9. Servicio de Rehabilitación de Infraestructuras Viarias y Oficina Técnica.

Bajo la responsabilidad de su titular, corresponden a este servicio las siguientes funciones:

a) Redactar y dirigir proyectos y contratos de obras y servicios para la reparación y rehabilitación de las infraestructuras viarias de la Red de Carreteras de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

b) Errepideari lotutako informazio geografikoko sistemak eta bide ondarea kudeatzekoak ezarri, mantendu, ustiatu eta garatzeko lanak sustatzea.

c) Araudi teknikoa egunean jartzea; eta, teknologia berrikuntzei dagokienez, ingurumen mailan jasangarriak diren eraikuntza material eta teknika berrien erabilera aztertu eta sustatzea.

d) Bide azpiegitura proiektuen ingurumen azterketak egin eta berrikustea.

e) Bide azpiegituren proiektu eta obretan ingurumen babeseko eta jasangarritasuneko jarduerak kudeatzea, eta horien jarraipena egitea.

f) Zarata-mapak eta zarataren aurkako ekintza-planak egitea, kudeatzea eta horien jarraipena egitea.

g) Proiektuak eta obrak teknikoki gainbegiratzea.

h) Garraio berezietako baimen osagarrien eskaerei buruzko txostenak egitea.

i) Errepideko elementuak hobetzeko eta araudira egokitzeko jarduketak egitea.

j) Organo eskudunak agindutako proiektuak idatzi, eta obrak zuzendu eta kontrolatzea.

## 2. ATALA. Plangintza eta Ustiaketa Zuzendaritza Nagusia

### 10. artikulua. Plangintza eta Ustiaketa Zuzendaritza Nagusiaren eginkizunak.

1. Plangintza eta Ustiaketa Zuzendaritza Nagusiari dagokio ondoko eginkizunak betetzea, bertako titularraren buruzagitzaren eta erantzukizunaren pean:

a) Lurralde Historikoko Errepide Sarearen plangintza orokorra egitea: Euskal Autonomia Erkidegoko Errepideen Plan Orokorra prestatzeko eta jarraipena egiteko lanetan parte hartuz; eta Gipuzkoako Errepideen Lurraldearen Arloko Plana prestatuz eta horren jarraipena eginez.

b) Lurralde Historikoko Errepideen Sarearekin zerikusia duten gaitan, Europako, Estatuko eta Autonomia Erkidegoko erakundeekin harremanak izatea eta erakunde horiekin koordinatzea.

c) Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalerriekin koordinatzea, eta harremanak eta elkarriketak izatea, bide azpiegiturei buruzko gaitan.

d) Gipuzkoako Foru Aldundiko Errepide Sareko bide azpiegiturretan egin beharreko jarduketak eta inbertsioak zehaztea.

e) Bide Azpiegiturretako Departamentuak eta Bidegi SA kudeatutako errepide sarearen plangintzaren eta inbertsioen jarraipena egitea, gainbegiratzea eta kontrolatzea.

f) Bide segurtasuna bide azpiegituren Kudeaketan txertatzea, bide azpiegituren segurtasuna kudeatzeari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren azaroaren 19ko 2008/96/EB Zuzentarauaren arabera.

g) Bide azpiegituren bide segurtasuna ebaluatzea (bide segurtasuneko ikuskapenak, bide segurtasuneko irizpideak eta istripu datuen ustiaketa) eta jarduketak planifikatzea.

h) Gipuzkoako Foru Aldundiko Errepide Sarea eta Bizikleta Bideen Sarea ustiatzea.

i) Kontratazio espedienteak prestatu eta horien jarraipen lana egitea; eta kontratuen gauzatze, aldaketa eta iraungipenaren Kudeaketa, jarraipen, aholkularitza eta kontrol lanak egitea, departamentuko zerbitzuekin lankidetzan.

2. Bere eginkizunak betetzeko, 4.2 artikuluan aipatutako ez gain, gai hauetan ere ebazteko eskumena izan eta erabiliko

b) Impulsar la implantación, mantenimiento, explotación y desarrollo de sistemas de información geográfica asociados a la carretera y de gestión del patrimonio viario.

c) Poner al día la normativa técnica; y estudiar y promover el uso de nuevos materiales y técnicas de construcción sostenibles ambientalmente y que respondan a innovaciones tecnológicas.

d) Elaborar y revisar estudios ambientales de los proyectos de infraestructuras viarias.

e) Gestionar las actividades de protección ambiental y sostenibilidad en proyectos y obras de infraestructuras viarias, y realizar su seguimiento.

f) Elaborar, gestionar y realizar el seguimiento de los mapas de ruido y planes de acción contra el ruido.

g) Supervisar técnicamente proyectos y obras.

h) Emitir informes en relación con las solicitudes de autorización complementaria de transportes especiales.

i) Ejecutar actuaciones de mejora y de adecuación a la normativa de los distintos elementos de la carretera.

j) Redactar proyectos y dirigir y controlar las obras que le sean encomendadas por el órgano competente.

## SECCIÓN 2.ª Dirección General de Planificación y Explotación

### Artículo 10. Funciones de la Dirección General de Planificación y Explotación.

1. Bajo la jefatura y responsabilidad de su titular, corresponde a la Dirección General de Planificación y Explotación el ejercicio de las siguientes funciones:

a) La planificación general de la Red de Carreteras del Territorio Histórico, mediante la participación en la elaboración y seguimiento del Plan General de Carreteras del País Vasco, y la elaboración y el seguimiento del Plan Territorial Sectorial de Carreteras de Gipuzkoa.

b) Las relaciones interinstitucionales con las instituciones europeas, estatales y autonómicas en las materias relacionadas con la Red de Carreteras del Territorio Histórico, así como la coordinación con dichas instituciones.

c) La relación, interlocución y coordinación con los municipios del Territorio Histórico de Gipuzkoa en materia de infraestructuras viarias.

d) La definición de las actuaciones e inversiones en infraestructuras viarias de la Red de Carreteras de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

e) El seguimiento, la supervisión y el control de la planificación y las inversiones de la red carreteras gestionadas por el Departamento de Infraestructuras Viarias y por Bidegi SA.

f) La integración de la seguridad vial en la gestión de las infraestructuras viarias de acuerdo con la Directiva 2008/96/CE del Parlamento Europeo y del Consejo, de 19 de noviembre de 2008, sobre gestión de la seguridad de las infraestructuras viarias.

g) La evaluación de la seguridad vial de las infraestructuras viarias (inspecciones de seguridad vial, criterios de seguridad vial y explotación de datos de accidentalidad) y planificación de actuaciones.

h) La explotación de la Red de Carreteras y la Red de Vías Ciclistas de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

i) La preparación y el seguimiento de los expedientes de contratación; y la gestión, el seguimiento, el asesoramiento y el control de la ejecución, modificación y extinción de los contratos, en colaboración con los servicios del departamento.

2. Para el cumplimiento de sus funciones, además de las atribuidas en el artículo 4.2, la persona titular de la Dirección

du Plangintza eta Ustiaketako zuzendari nagusiak, deskontzentrazioko arauei jarraituz:

a) Errepideen eta bizikleta bideen diziplina eta babesaren arloetan:

– Errepideei eta bizikleta bideei buruzko legeriak aurreikusitako baimenak ematea ukatzea, eta nahitaezko txostenak egitea, errepideen eta bideen herri jabari-gune eta babesguneetan obrak eta jarduerak egiteko eta lurzorua erabiltzeko.

– Arau-hauste administratiboengatik irekitako edozein espediente ebaztea, hauek izan ezik: etxebizitza edo industria pabiloiak botatzeko aginduak ematea edo 60.000 eurotik gorako isuna jarzea.

– Errepideei eta bizikleta bideei, edo haietako elementu funtzionaleri, seinaleei edo balizei eragindako kalteengatik erantzuteko espedienteak ebaztea.

b) Orokorrean:

– Departamentuaren beraren edo Bidegi SAren zerbitzuak eskaintzeagatik ordaindu beharreko tasak, prezio publikoak eta zergaz kanpoko ondare-prestazio publikoak likidatzea, departamentuari atxikitako herri jabariaren aprobetxamendu berezietatik ordaindu beharrekoak barne.

– Zerbitzu publikoen funtzionamenduak hirugarrenei eragindako kalteengatik irekitako ondare-erantzukizuneko espedienteak ebaztea, erreklamaturako kalte-ordaina 60.000 euro edo gutxiagokoa denean.

– Bermeak eskatzea eta itzultzea, hala dagokionean.

3. Plangintza eta Ustiaketako zuzendari nagusiak ondare-erantzukizunaren arloan emandako ebazpenek amaiera emanago diote administrazio bideari eta horien aurka berraztertzeko errekurtsioa jar daiteke zuzendariaren aurrean.

#### 11. artikulua. Plangintza eta Ustiaketa Unitatea.

Bere titularraren erantzukizunpean, unitate horri ondorengo eginkizunak dagozkio:

a) Euskal Autonomia Erkidegoko Errepideen Plan Orokorra prestatzeko eta jarraipena egiteko lanetan parte hartzea.

b) Gipuzkoako Errepideen Lurraldearen Arloko Plana prestatu eta jarraipena egitea.

c) Departamentuari aholku eta laguntza ematea: errepideetako plangintza eta errepideen azterlan eta proiektuak koordinatu ahal izateko lurralde eta hiri antolaketako planekin eta bestelako arloko planekin.

d) Udal plan eta hirigintzako beste tresnekin koordinatze-ko ahalmena erabiltzea, Gipuzkoako Errepide eta Bideen Foru Arauaren testu bateratuak (ekainaren 6ko 1/2006 Foru Dekretu Arau-emaileaz onartuak) xedatutakoa aplikatuz.

e) Gipuzkoako Foru Aldundiaren errepideen sarea eta udal sarbideak koordinatzea.

f) Bidegi SAren eta Bide Azpiegiturarako Departamentuaren jarduketan planifikazioa koordinatzea.

g) Errepideen eta bizikleta bideen eta haien babesguneen erabilera kontrolatzea.

#### 12. artikulua. Kontratazio Zerbitzua.

Titularraren ardurapean honako zeregin hauek dagozkio zerbitzuari:

a) Kontratazio espedienteak prestatu eta jarraipena egitea.

b) Kontratuen gauzatze, aldaketa eta iraungipenaren kudeaketa, jarraipen, aholkularitza eta kontrol lanak egitea, departamentuko zerbitzuekin lankidetzan.

General de Planificación y Explotación ostentará y ejercerá, igualmente en régimen de desconcentración, las siguientes competencias resolutorias:

a) En materia de disciplina y defensa de las carreteras y vías ciclistas:

– Concesión o denegación de toda clase de autorizaciones y emisión de los informes preceptivos, previstos en la normativa de carreteras y vías ciclistas, para la realización de obras, actividades y usos del suelo en las zonas de dominio público viario así como en las zonas de protección.

– Resolución de toda clase de expedientes por infracciones administrativas, salvo imposición de sanciones de multa cuyo importe sea superior a 60.000 euros y órdenes de derribo de edificaciones de vivienda o industriales.

– Resolución de toda clase de expedientes de responsabilidad por daños causados a las carreteras y vías ciclistas, o sus elementos funcionales, de señalización o de balizamiento.

b) En general:

– Liquidación de tasas, precios públicos y prestaciones patrimoniales de carácter público y naturaleza no tributaria por la prestación de servicios propios del departamento o de Bidegi SA, incluidos los precios por aprovechamientos especiales del dominio público adscrito al mismo.

– Resolución de expedientes de responsabilidad patrimonial por daños sufridos por terceros como consecuencia del funcionamiento de los servicios públicos, siempre que la correspondiente reclamación no supere la cuantía de 60.000 euros.

– Exigencia y devolución de garantías, cuando proceda.

3. Las resoluciones dictadas por la persona titular de la Dirección General de Planificación y Explotación en materia de responsabilidad patrimonial ponen fin a la vía administrativa y frente a ellas cabrá la interposición de recurso de reposición ante la misma.

#### Artículo 11. Unidad de Planificación y Explotación.

Bajo la responsabilidad de su titular, corresponden a esta unidad las siguientes funciones:

a) La participación en la elaboración y seguimiento del Plan General de Carreteras del País Vasco.

b) La elaboración y seguimiento del Plan Territorial Sectorial de Carreteras de Gipuzkoa.

c) El asesoramiento y asistencia al departamento para la coordinación de la planificación y de los estudios y proyectos de carreteras con los planes de ordenación territorial y urbana y otros planes sectoriales.

d) El ejercicio de las facultades de coordinación con los planes y otros instrumentos urbanísticos de carácter municipal que se derivan del Texto Refundido de la Norma Foral de Carreteras y Caminos de Gipuzkoa (Decreto Foral Normativo 1/2006, de 6 de junio).

e) La coordinación de la red de carreteras de la Diputación Foral de Gipuzkoa y de los accesos municipales.

f) La coordinación de la planificación de las actuaciones de Bidegi SA y del Departamento de Infraestructuras Viarias.

g) El control del uso de las carreteras y vías ciclistas, y de sus zonas de protección.

#### Artículo 12. Servicio de Contratación.

Bajo la responsabilidad de su titular, corresponden a este servicio las siguientes funciones:

a) La preparación y el seguimiento de los expedientes de contratación.

b) La gestión, el seguimiento, el asesoramiento y el control de la ejecución, modificación y extinción de los contratos, en colaboración con los servicios del departamento.

c) Departamentuko zerbitzuekin lankidetzan jardutea, kontratuetan sartzen diren klausula sozialen, ingurumen klausulen eta beste politika publiko batzuei dagozkien klausulen jarraipena eta kontrola egiteko.

### 3. ATALA. Idazkaritza Teknikoa

#### 13. artikulua. Idazkaritza Teknikoaren eginkizunak.

Departamentuko Idazkaritza Teknikoa foru diputatuaren mende dago hierarkikoki, eta zuzendari nagusien mende funtzionalki, eta eginkizun hauek izango ditu, departamentuaren eskumenen barruan:

a) Departamentuko organoek nahiz Diputatuen Kontseiluak onartu beharreko xedapen, egintza eta ebazpenen legezko-tasun kontrola egitea.

b) Kontratazio espedienteak tramitatzea, eta haien legezko-tasun kontrola egitea.

c) Xedapen orokorren proiektuak aztertu, prestatu eta horien jarraipena egitea; eta beste administrazio publiko edo erakunde publiko zein pribatuekin lankidetzan aritzeko hitzarmen eta protokoloak aztertu, prestatu eta horien jarraipena egitea.

d) Departamentuko organoei lege aholkularitza eskaintzea: eskatzen dizkieten txostenak egin eta kontsultei erantzutea.

e) Departamentuko fede publikoa erabiltzea.

f) Departamentuko erregistro orokorra eta artxiboa eramatea.

g) Departamentuaren aurrekontuaren aurreproiektua prestatzea, zerbitzu eta zuzendaritzak koordinatuta.

h) Departamentuko organoen gastuen kontrola egitea.

i) Departamentuaren jarduera ekonomikoaren Kudeaketa, tramitazioa eta kontabilitate kontrola egitea.

j) Departamentuko sistema informatikoa zerbitzuekin koordinatzea; eta, halaber, departamentu barruan, identifikazio eta jakinarazpen sistemak kudeatzea eta, oro har, administrazio elektronikoa ezarri eta garatzeko beharrezko neurriak hartzea.

k) Gobernantza Departamentuak langileen alorrean dituen eginkizunak gauzatzekoan elkarlanean aritzea.

l) Martxoaren 9ko 2/2015 Foru Arauak, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoak, emakumeen eta gizonen berdintasunerako unitateei esleitzen dizkion eginkizunak gauzatea, hala balegokio.

m) Foru Aldundiaren eskumen esparru ezberdinetan emandako foru araudiak egotzen dizkion eginkizunak gauzatea, bereziki, gardentasunaren eta informazio publiko eskuratzearen alorrean eta agirien Kudeaketaren eta espediente elektronikoren alorrean.

n) Administrazioaren berrikuntza eta eraldaketarako politiken aplikazioan laguntzea departamentuko organoei.

ñ) Bere jardun esparruan egotzen edo eskuordetzan ematen zaizkion gainerako eginkizunak gauzatea.

*Lehen xedapen gehigarria. Zuzendari nagusia ordezkatzeta.*

Errepideetako zuzendari nagusiaren eta Plangintza eta Ustiaketa zuzendari nagusiaren karguak bete gabe daudenean edo haiek kanpoan edo gaixorik daudenean, batak bestea ordeztuko dute esleituta dituzten eginkizunak eta eskumenak betetzen, betiere departamentuko foru diputatuak berak funtzio eta eskumen horiek bere gain berariaz hartzea erabakitzen ez badu.

c) Colaborar con los servicios del departamento, en el seguimiento y control del cumplimiento de las cláusulas sociales, medioambientales y relativas a otras políticas públicas en los contratos.

### SECCIÓN 3.ª Secretaría Técnica

#### Artículo 13. Funciones de la Secretaría Técnica.

La Secretaría Técnica del departamento depende jerárquicamente de la diputada foral y, funcionalmente, de las personas titulares de las direcciones generales, y ejercerá las siguientes funciones en el marco de las competencias del departamento:

a) El control de legalidad de las disposiciones, actos y resoluciones que se sometan a la aprobación de los órganos del departamento y del Consejo de Gobierno Foral.

b) La tramitación y el control de legalidad de los expedientes de contratación.

c) El estudio, la elaboración y el seguimiento de los proyectos de disposiciones generales, y de los convenios y/o protocolos de colaboración con otras administraciones públicas e instituciones públicas o privadas.

d) El asesoramiento jurídico a los órganos del departamento, evacuando los informes y consultas que le sean requeridos.

e) La fe pública del departamento.

f) El registro general y archivo del departamento.

g) La elaboración del anteproyecto del presupuesto del departamento, coordinando a los diversos servicios y direcciones.

h) El control del gasto de los órganos del departamento.

i) La gestión, tramitación y control contable de la actividad económica del departamento.

j) La coordinación del sistema informático del departamento con los servicios; así como la gestión de los sistemas de identificación y notificación y, en general, la adopción de las medidas necesarias para la implantación y el desarrollo de la administración electrónica dentro del departamento.

k) La colaboración con el Departamento de Gobernanza en el desarrollo de sus funciones en materia de personal.

l) En su caso, las funciones que la Norma Foral 2/2015, de 9 de marzo, para la igualdad de mujeres y hombres atribuye a las unidades departamentales para la igualdad de mujeres y hombres.

m) Las funciones que le atribuye la normativa foral dictada en los distintos ámbitos de competencia de la Diputación Foral, en particular, en materia de transparencia y acceso a la información pública y en materia de gestión documental y expediente electrónico.

n) El apoyo a los órganos del departamento en la aplicación de las políticas de innovación y transformación de la Administración.

ñ) Aquellas otras funciones que dentro de su ámbito de actuación le sean atribuidas o delegadas.

*Disposición adicional primera. Suplencia de la directora y director general.*

En los supuestos de vacante, ausencia o enfermedad, la directora general de Carreteras y el director general de Planificación y Explotación, se suplirán recíprocamente en el ejercicio de todas las competencias y funciones que tienen atribuidas, salvo que las mismas se asuman expresamente por la diputada foral del departamento.



*Bigarren xedapen gehigarria. Foru diputatuari dagozkion beste eskumen batzuk.*

Departamentuko foru diputatuak onartuko ditu uztailaren 12ko 6/2005 Foru Arauak 31.6. artikulua 2. paragrafoan eta 40.5.b) artikuluan ezarritakoari jarraituz berak adjudikatutako kontratuei dagozkien obren amaierako ziurtapenak eta kontratu horien likidazioak, betiere zenbatekoa adjudikazio prezioaren % 10 baino gutxiago bada. Ahalmen horrek berekin ekarriko du, behar denean, dagozkion gastua ere onartzea.

*Hirugarren xedapen gehigarria. Antolaketa-egokitzapenak.*

Foru dekretu hau indarrean jartzen den egunetik hilabete bateko gehieneko epean, bere onarpenak eragiten dituen antolaketa-egokitzapenak proposatuko dizkio Gobernantza Departamentuak Diputatuen Kontseiluari.

*Xedapen indargabetzailea.*

Indargabetuta gelditzen dira: Bide Azpiegituretako Departamentuaren egitura organikoari eta funtzionalari buruzko uztailaren 19ko 20/2016 Foru Dekretua, eta foru dekretu honetan aurreikusitakoaren aurka dauden maila bereko edo beheragoko xedapen guztiak.

*Azken xedapena. Indarrean jartzea.*

Foru dekretu hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den egunean jarriko da indarrean.

Donostia, 2020ko urriaren 20a.

DIPUTATU NAGUSIA,  
Markel Olano Arrese.

BIDE AZPIEGITURETAKO  
DEPARTAMENTUKO  
FORU DIPUTATUA,  
Aintzane Oiarbide Iruretagoiena.

GOBERNANTZA DEPARTAMENTUKO  
FORU DIPUTATUA,  
Eider Mendoza Larrañaga.

(5534)

*Disposición adicional segunda. Otras atribuciones a la diputada foral.*

Corresponderá a la diputada foral del departamento la aprobación de las certificaciones finales de obra y la liquidación de los contratos por ella adjudicados de conformidad con lo previsto en los artículos 31.6. párrafo 2.º y 40.5.b) de la Norma Foral 6/2005, de 12 de julio, siempre que su importe sea inferior al 10 % del precio de adjudicación. Dicha facultad llevará implícita la de la aprobación, en su caso, del gasto correspondiente.

*Disposición adicional tercera. Adaptaciones organizativas.*

En el plazo máximo de un mes desde la entrada en vigor de este decreto foral, el Departamento de Gobernanza propondrá al Consejo de Gobierno Foral las adaptaciones organizativas necesarias derivadas de su aprobación.

*Disposición derogatoria.*

Quedan derogados el Decreto Foral 20/2016, de 19 de julio, sobre estructura orgánica y funcional del Departamento de Infraestructuras Viarias, así como cuantas disposiciones de igual o inferior rango se opongan a lo previsto en este decreto foral.

*Disposición final. Entrada en vigor.*

El presente decreto foral entrará en vigor el día de su publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

San Sebastián, a 20 de octubre de 2020.

EL DIPUTADO GENERAL,  
Markel Olano Arrese.

LA DIPUTADA FORAL  
DEL DEPARTAMENTO DE  
INFRAESTRUCTURAS VIARIAS,  
Aintzane Oiarbide Iruretagoiena.

LA DIPUTADA FORAL  
DEL DEPARTAMENTO DE GOBERNANTZA,  
Eider Mendoza Larrañaga.

(5534)